



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 5a

47. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan tiket sozial bat, elikagaiak, produktu freskoak eta premia-premiaazkoak erosteko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du ekitatearen alde eta Nafarroako herritar guztiak osasun-sistema publikorako sarbidea izatearen alde. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan emakumezko eta gizonezko langileen arteko erantzunkidetasuna sustatzeko. Geroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, enplegu politika aktiboetarako funtsen xedeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, homofobia edo transfobia egoeren aurkako prebentzio-neurri, protokolo edo jarduketa-programei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Jauregiaren eremuko eraikinen mantentze-lanei, zaharbertzeari eta egokitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan tiket sozial bat, elikagaiak, produktu freskoak eta premia-premia-erosteko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar dezan tiket sozial bat, elikagaiak, produktu freskoak eta premia-premia-erosteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldea, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan tiket sozial bat, elikagaiak, produktu freskoak eta premia-premia-erosteko.

Gizarte-ongizateko eredu publiko baten logika nagusia gizarteratzea izan behar da, bazterketaren logikaren aurrean. Hori dela eta, emergentzia sozialerako neurriak hartzea ezinbesteko urratsa da bazterketa ekiditeko.

Nafarroa ez dago pobreziaren arriskutik kanpo. Arope (At-Risk-Of Poverty and Exclusion) adierazlea, Estatistikako Institutu Nazionalak prestatzen du Bizi-baldintzen Inkestaren arabera, eta Europa

osoan dago harmonizatua. Aipatu adierazleak ikustarazi zuen Nafarroan 2014. urtean 76.000 pertsona zeudela pobreziaren arriskuan eta 92.000, aldiz, pobreziaren eta bazterketaren arriskuan. 2009. urtetik % 4,1 handitu da kopuru hori.

Ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuak dago-kion erantzukizuna bere gain har dezan eta bere jardun politikoaren arreta jar dezan emergentzia horri arlo publikotik erantzun efizientea, azkarra eta eraginkorra emateko.

Uste dugu aldizkakoak ez diren bana-banako laguntza ekonomikoen esparruan neurri bat taxutzen ahal dela, oinarrizko elikagaiak eskuratzen laguntze aldera.

Gaur egun entitate sozialak arduratzen dira elikagai-sortak beren betebeharrak asetzerari iristen ez diren pertsona edo familiei banatzeaz. Eginkizun hori, oraingoan, guztiz ezinbestekoa bada ere, uste dugu Administrazioan esparru normalizatua-goak sustatu behar ditugula, emergentziaren edo gizarte-bazterketaren egoeran dauden pertsonen eta familien aukera izan dezaten elikagaiak, produktu freskoak eta premia-premia-erosteko.

Hori dela eta, tiket sozial bat proposatzen dugu. Tiket horren xedea da oinarrizko eta premia-premia-erosteko produktuak eskuratzeko modu duinago bat bilatzea, ahalik eta estigma txikiena sortzen duten mekanismoen bidez. Bultzatu nahi den ereduaren beste formula batzuk hedatuko lirateke, entitate sozialek, enpresa emaleek eta udalek elikagaiak eman ordez. Ildo horretatik, sustatuko litzateke ezartzen diren laguntzen onuradunek bereaiek kudeatzea egiten dituzten erosketak, tike-ten bidez (kasu honetan), edo bultzatzen ahal diren bestelako formula batzuen bidez.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du:

1. Abian jar dezan tiket sozial bat, elikagaiak, produktu freskoak eta premia-premiazkoak erosteko. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek kudeatuko dute eta emergentzia sozialaren edo gizarte-bazterketaren egoeran dauden pertsona eta familiei zuzenduko zaie.

2. Nafarroako Gobernuak hitzarmenak sinatuko ditu elikagaintzako kate eta establezimendu batzuekin, tiketak prestatzeko. Tiket horiek ez dute erabiliko administrazio publikoekin identifikatzeko inolako elementurik.

3. Nafarroako Tiket Soziala eskuratzeko, betiere Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek alde aurreko

balorazio teknikoa egingen dute, haien ardura izanik pertsona edo familia eskatzaileen beharrak baloratzea, kontuan hartuta tiketa eskuratzeko lehentasuna emanen zaiela adin txikikoak beren kargu dituzten familiei.

4. Udal edo Mankomunitate bakoitzak aurrekontu bat izanen du, Nafarroako Gobernuak esleitua, urtero banatzeko. Funtsak banatzeko honako irizpide hauek erabiliko dira: biztanleria, inolako prestaziorik hartzen ez duten langabeen kopurua, eta erretiroko kotizazio gabeko pentsioak, errenta bermatua eta gizarte-larrialdietarako laguntzako prestazioak hartzen dituztenen kopurua.

Iruñean, 2016ko martxoaren 18an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du ekitatearen alde eta Nafarroako herritar guztiek osasun-sistema publikorako sarbidea izatearen alde.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak apustu egiten baitu ekitatearen alde eta Nafarroako herritar guztiek osasun-sistema publikorako sarbidea izatearen alde.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Deitzen den hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea mozioa, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeina martxoaren 17ko Osoko Bilkuran eztabaidatutako jabelduratik heldu baita,

hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Eskualdeko nahiz landa eremuko osasun-laguntza dela-eta Nafarroako Gobernuari egindako jabeldura ekitateari eta irisgarritasunari buruzkoa zen batik bat, hau da, osasun arloko eskubide-berdintasunari buruzkoa.

Aurreko legegintzaldian zer gertatu zen gogorarazi beharra dago; izan ere, huts egin zuten UPNren Gobernuaren dekretu bidez ezartzen saiatu zen osasun-laguntza jarraitu eta larrialdikoaren erreformak eta berrantolamenduak. Erreformak arbuio handia eragin zuen, batez ere landa eremuetan, toki entitateen, sindikatuen, profesionalen eta talde politikoen artean. Haien ustez, erreforma ekonomizista zen, parte-hartze gutxikoa, eta atzerakada ekarriko zukeen osasun-laguntzaren kalitateari dagokionez.

Landa eremuko osasun-laguntzari begira ekarriko lezakeen inboluzioa ikusita, Parlamentuak lege bat onetsi zuen urgentziaz: 2/2013 Foru Legea, otsailaren 14koa. Lege horrek Nafarroako Gobernuaren behartzen zuen landa eremuetako beharrezan egiazko analisi bat eta osasun-laguntza jarraitu eta larrialdikoko zentroen funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko plan bat egin zezan, eremu horietako profesionalen, toki entitateen eta

gainerako kolektiboen egiazko parte-hartzea bermatuz, ahalik eta adostasunik handiena lortze aldera. Gobernuak urtebeteko epea zeukan plan hori Parlamentura ekartzeko, bertan eztabaidatu eta bozka zedin.

Eraitza ezin txarragoa izan zen. Beharriaz buruzko azterlan zeharo partzial bat aurkeztu zen, landa eremuetako eragileen parte-hartzerik gabekoa, eta azterlanaren ondorioak ikusita nekez azter zitezkeen egiazko beharriaz. Legean aurreikusitako plana ez zen berez plan bat; izan ere, Landa Eremuko Larrialdi Zerbitzua sortzen zuen 2008ko akordio sindikalaren birformulazio bat zen. Akordio hura gutxiengo sindikalak sinatu zuen, eta ez zen Parlamentuan inolaz ere bozkatu. Legearen ez-betetze ageri-ageriko baten aitzinean gaude, Parlamentuaren eta Arartekoaren txosten juridikoek berresten dutenez.

Testuinguru honetan, Pirinioetako Osasun Plataformaren ekimenez, proposamen adostu bat jorratu zuten eragile ugari urtebeteko landa eremuetan; azkenean, 170 udalen babesarekin, udalen legegintza-ekimen bat bat aurkeztu zen Parlamentu honetan, zeinaren bidez eskatzen baitzen Nafarroako herritar guztiei berdintasunez eta lege bidez bermatzea osasun-eskubidea.

Legeak hainbat neurri jasotzen zituen ekitatea eta landa eremuek behar duten berariazko tratamendua bermatzeko, beren ezaugarri geografiko eta orografiko, soziologiko eta populazio-mailakok direla-eta, bai eta erakargarritasun profesional gutxiko eremuetan profesionalak kontratatze eta fidelizatzeko zailtasunarengatik ere.

Proposatutako neurriak logikoak eta beharrezkoak ziren arren, proposamena, nahiz eta Nafarroako udal gehien-gehienaren babesa eduki, ez zen izapidera onartu, UPNk eta PPK aurkako botoa eman zutelako, eta PSN, berriz, abstenitu egin zelako.

Harrezkero, gure ustez, ezer gutxi aitzineratu da. Oinarrizko osasun-laguntzan, laguntza jarraituan eta larrialdikoan indarrean darrai 2014ko martxoaren 13ko akordioak, zeinak ez baititu konpondu landa eremuko zentron antolamenduaren arloko arazoak eta gabeziak. Landa Eremuko Larrialdi Zerbitzua mikroguardia-sistemarekin ordeztzeko arazoak daude, ordezkapen prekarioak eta enplegu-aniztasuna daude, eta bitartean produktibitatea kobratzen duten eta atsedena errespetatzen ez zaien langile finkoak daude. Halaber, absentzien estaldura duinik gabe jarraitzen dugu, eta ez da hobekuntzarik ibilgailuen, ekipamenduen, prestakuntzaren edo lan-baldintzen arloetan.

Eskualdeko ospitale-laguntzari dagokionez, nabarmenak dira gabeziak. Lizarrako eta Tuterako ospitaleetan betiko gaitza da deskapitalizazioa, bai giza baliabideen, bai baliabide materialen arloan, eta arazoa konpondu gabe dago gaur egun. Profesionalik eza, kontratu prekarioak, profesionalak fidelizatzeko ezintasuna, langileen kudeaketa negargarria, eta antolamendu sarritan ez-eraginkorra. Egoera horrek eragiten ditu itxarotzerrenda luzeak eta zentro pribatuetarako deribazio-kopurua –baita Iruñekoetara egindakoa ere– eskandalagarria izatea, edo peonada izenekoak egin behar izatea espezialitate eta zerbitzu zehatz batzuetan.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du ekitatearen alde eta Nafarroako herritar guztiek osasun-sistema publikorako sarbidea izatearen alde. Hori dela-eta, uste du landa eremuek aintzatespen eta tratamendu berezia behar dutela, beren ezaugarri orografiko, geografiko eta populazio-mailakoak direla-eta, bai eta profesionalak kontratatze eta fidelizatzeko zailtasunarengatik ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2/2013 Foru Legea bete dezan; izan ere, foru lege horrek Nafarroako Gobernua behartzen du landa eremuetako beharriaz egiazko analisi bat eta osasun-laguntza jarraitu eta larrialdiko zentron funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko plan bat egin dezan, eremu horietako profesionalen, toki entitateen eta gainerako kolektiboen egiazko parte-hartzea bermatuz, ahalik eta adostasunik handiena lortze aldera. Halatan, uste du egun ezarritako mikroguardia-sistemak ez dituela landa eremuko arazoak konpontzen, eta sistema hori berehala berraztertzea premiatzen du, neurri egokiak har daitezen landa eremuan kalitatezko osasun-laguntza eta lan baldintza duinak bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak balioetsi egiten du landa eremuak udalen legegintza ekimenaren bidez 2013an eta 2014an egindako lana, modu parte-hartzailean eta adostasun handiz egin, Nafarroa osoko 170 udalen babesarekin Parlamentuan aurkeztera heldu zena. Halatan, Nafarroako Gobernua premiatzen du eskualde bakoitzeko eragileekin lan egin dezan eta egiteke daukan planean ekimen horren edukiak jaso ditzan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleen biziberritze eta antolatze efi-

zienteko plan bat taxutu dezan, giza baliabideei eta baliabide materialei dagokienez, hurbiltasuneko eta kalitatezko ospitale-laguntza bermatzeko. Halatan, egiturazko neurriak proposatuko dira profesionalak fidelizatzeko eta itzarote-zerrendak murrizteko, autoituntzera edo peonada izenekoetara jo behar izanik gabe, plantillen sendotze urgen-

tearen aldeko hautua eginez eta lan-eskaintza publikorako deialdia eginez, ahalik eta handiena eta azkarren.

Iruñean, 2016ko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan emakumezko eta gizonezko langileen arteko erantzunkidetasuna sustatzeko.

GEROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hartu beharreko neurriak har ditzan emakumezko eta gizonezko langileen arteko erantzunkidetasuna sustatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldearen eledun Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Berriki argitaratu diren txosten batzuen arabera, Nafarroako emakume langileak diskriminatuta daude oraindik emakume izateagatik, eta azken urteotan egoera horrek ez du hobera egin. Gaur egun Nafarroako emakumeen jarduera-tasa (lan egiteko adinean egon eta era aktiboan enplegua bilatzen ari diren pertsonen portzentajea) % 54 ingurukoa da; gizonen tasa, berriz, % 64 da. Langabezia-tasei dagokienez, gizonena % 12 inguru-

koa da, eta emakumeena, aldiz, % 15etik gorakoa.

Behin-behinekotasun tasari dagokionez, hiru emakumetik bik bakarrik dute kontratu mugagabea, baina gizonen kasuan lautik hiruk izaten dute. Horretaz gain, adierazi behar da emakumeen % 30ek baino gehiagok lanaldi partzialeko kontratua izaten dutela, baina gizonen portzentajea % 7 baino ez dela. Bestetik, jaioberriak zaintzeko lan-eszedentzien % 90 inguru emakumeek eskatzen dituzte.

Horiek horrela, ez da harrizkoa aipatu zenbakekin batera aldizka argitaratzen diren txostenetan salatzea emakumeen presentzia urria zuzendaritza postuetan edo emakumeen eta gizonen soldaten arteko arrail itzela, gure herrialdean egiten den edozein azterlan seriotan ez baita inoiz % 20 baino txikiagoa izaten.

Geroa Bairen ustez, erantzunkidetasunak, Emakumearen Institutuaren arabera "emakumeek eta gizonek modu ekitatiboan bere gain hartzea etxearen, familiaren eta zaintzaren arloarekin lotutako erantzukizunak, eskubideak, betebeharrak eta aukerak" denak, laguntza erabakigarria eman dezake eta eman behar du egoera hori orekatzeko. Erantzunkidetasuna ezartzearen aldekoak gara, itun hirukoitz baten bidez, honako hauek kontuan hartuko baititu: alde batetik, ukitutako erakundeak (Estatua, enpresak, sindikatuak, GKE...); beste alde batetik ohiko rolak gainditu nahi dituzten bikoteak; eta, azkenik, familietako kide guztiak, belaunaldien arteko itun moduko batera iristeko. Belaunaldien arteko itunaren ideia hori are nabarmenagoa da gaurko egoera sozioekonomikoan, aitona-amonek garrantzi handia hartu baitute zenbait urtetatik hona adin txikikoen zaintzan.

Erakundeek, publikoek zein pribatuek, neurriak hartu behar dituzte elkarrekin diskriminazio bidegabe hori desagerrarazteko. Lehenengo eta behin, Geroa Baikook salatzen dugu Espainiako Gobernuak ez duela garatu Haurrak izan edo adoptatzeagatiko baimen berdin eta besterenezinen aldeko Plataformak (PPIINA) aurkeztu zuen legez besteko proposamena, Diputatuen Kongresuko Berdintasun Batzordeak 2012ko urrian aho batez onetsi zuena.

Utzikeria bera erakutsiz, erakunde publikoetatik ia ez dira sustatu lanaldia arrazionalizatzeko neurriak, benetako bateragarritasuna ahalbidetuko luketenak eta, gainera, eragin positiboa ekarriko luketenak langileen produktibitatearen aldetik. Espainia da Europar Batasunean urteko lanordu gehien egiten diren herrialdeetako bat, baina aldi berean produktibitate tasa txikienetako bat du.

Gure ustez, neurri horiek hurbilduko gaituzte gizonek eta emakumeek lan aukera berak dituzten gizarte batera, zeinetan gizonak dagokien neurrian arduratuko baitira mendekotasuna duten pertsonak, inguruan dituztenak, zaintzeaz.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamenak aurkezten ditugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du behar diren neurriak har ditzan Nafarroak gizon eta emakume langileen artean

erantzunkidetasuna sustatzeko, hala esparru publikoan nola sektore pribatuan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du kontratazio publikoetan pizgarrien sistemak ezar ditzan, halako moduz non balorazio-baremoetan era positiboan baloratuko diren enpresek izan ditzaketen bateragarritasun-planak.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du aldatu dezan gurasoek jaiotza, adopzio edo hartze kasuetan adin txikikoak zaindu edo haiei arretea emateko dituzten baimenen eta prestazioen sistema, kronograma zehatz eta egingarri bat ezarriz aitatasun baimen besterenezinak gaur egun indarrean dauden amatasun baimenekin parekatzeko, ahalik eta epe laburrenean .

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du sentsibilizazio, sustapen eta erantzunkidetasun kanpainak eta beharrezkotzat jotzen dituen ekintza guztiak gauzatu ditzan, gure gizartean aldaketa kultural baterantz abiarazteko; aldaketa horrek rol eta estereotipo sexistak baztertuko ditu eta ikuspegi partekatu eta berdintasunezko bat ahalbidetuko du, bizitza mantentzeko behar diren lan guztiei (zaintza barne) dagokienez.

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

F saila:
GALDERAK

Galdera, enplegu politika aktiboetarako funtsen xedeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu politika aktiboetarako funtsen xedeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 27ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak informazio-eskari bat egin du (9-15/PES-00140), Enplegu politika aktiboetarako funtsen xedeari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

Azaroaren 30eko ESS/2570/2015 Aginduaren bitartez lurraldeen arabera banatzen dira Estatuko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatutako lan arloko diru-laguntzak, 2015eko ekitaldi ekonomikoak, eskumenak berenganatuta dauzkaten autonomia erkidegoek kudea ditzaten. Aginduan bertan aipatzen den bezala, diru-laguntza horiek xede-izaera dute eta bideratuta daude enplegu politikaren urteko planean ezarritako zerbitzu eta programak finantzatzera. Plan hori Ministroen Kontseiluaren 2015eko uztailaren 24ko Erabakiaz onetsi ziren. Agindu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateari 15.122.407 euro ematen zaizkio, honela banatuta:

- 1. ardatza. Lanbide-orientazioa:937.618 €.
- 3. ardatza. Enplegu-aukerak:1.472.568 €.
- 4. ardatza. Enpleguan aukera-berdintasuna sustatzea:8.021 €.
- 5. ardatza. Ekintzailatza:32.864 €.

- 2. ardatza. Prestakuntza eta birkualifikazioa533.098 €.
- 2. ardatza. Lanbide heziketa:10.107.694 €.
- 1. ardatza. Kolokazio agentziak:1.406.426 €.
- 6. ardatza. Modernizatzea:624.118 €.

Erantsita datorren 2015eko enplegu politikaren urteko planean (<https://www.boe.es/boe/dias/2015/08/11/pdfs/BOE-A-2015-8990.pdf>), Nafarroako Foru Komunitateak egin dituen enplegu politika aktiboen arloko jarduketa guztiak jaso dira. Hona hauek, besteak beste:

– Langabetuei egindako lanbide-orientazioko eta banakako ibilbideetako ekintzak finantzatzera zuzendutako diru-laguntzak.

– Toki entitateek eta irabazi asmorik gabeko entitateek langabeak kontratatzeko laguntzak.

– Gizarteratzeko eta laneratzeko zentroetarako laguntzak.

– Enpleguko eta tokiko garapeneko agenteak kontratatzeko laguntzak.

– Kolokazio agentziekin egindako laneratzeko programak.

– Langabezi sariak kapitalizatzeko laguntzak.

– Enpresa arruntek desgaituak kontratatzeko laguntzak.

– Prestakuntza eta enplegurako programa mistoetarako diru-laguntzak.

– Langabetuei eta landunei zuzendutako prestakuntza ekintzak finantzatzeko diru-laguntzak.

– Enplegu-konpromisoa biltzen duen prestakuntzarako laguntzak.

– Lanbide-gaitasunak egiaztatzeko programak.

– Enpresa txiki eta ertainek prestakuntza-ekin-tzak egiteko laguntzak.

– Zentro berekiek egiten dituzten prestakuntza-ekintzak (Iturrondo zentroa, CENIFER).

– Enplegu agentziak modernizatzea.

Horrenbestez, Konferentzia Sektorialetik heldu diren funtsak bideratuko dira aipatutako jarduketak finantzatzera, kontuan hartuta azaroaren 30eko ESS 2570/2015 Aginduan ezarritako jarraibideak.

Bestalde, abenduaren 17ko ESS/1978/2015 Aginduaren bitartez lurraldeen arabera banatzen dira Estatuko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatutako lan arloko diru-laguntzak, 2015eko ekitaldi ekonomikokoak, eskumenak berenganatuta dauzkaten autonomia erkidegoek kudea ditzaten. Diru-laguntza horien xedea da enplegurako aktiba-

zio programaren eskumenak gauzatzea. Helburu dute honako hauetarako finantzaketa ematea: orientazio-ekintzak, banakako ibilbideak egitea eta enplegurako aktibazio programan jasotako lanertze ekintzak aurrera eramatea. Agindu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateari 417.211,97 euro ematen zaizkio, aipatutako ekintzak finantzatzeko erabiliko direnak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko apirilaren 1ean

Eskubide Sozialetako Batzordea Miguel Lapa-rra Navarro

Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko azaroaren 27ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du. Galdera 2015eko azaroaren 19ko 2234 sarrera-zenbakia dauka (8-15/PES-00141), eta haren bidez jakin nahi du zer irizpidetan oinarritu den Nafarroako Gobernuaren erabakia, 515,6 milioiko zenbatekoan ezartzekoa Foru Komunitateak Estatuari egiten dion ekarpena, eta zer gai gelditzen diren gobernu zentralarekin negoziatzeko. Hona Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren erantzuna:

Estatuari egin beharreko ekarpenaren aurrekontua egiteko aplikatu diren irizpideak hitzarmen ekonomikoan (53. artikulutik 58. artikulura) ezarritakoak izan dira. Hau da, urteko ekarpena finkatzen da egozpen-adierazlea aplikatuz Foru Komunitateak bere gain hartu ez dituen Estatuaren

zamen eta dagozkien ordainen guztizko zenbatekoari, hain zuzen ere lege-arau horretako 54. artikulutik 58. artikulura ezarritakoari jarraituz. Halaber, ezartzen da metodologia hori bi administrazioak ados jarrita erabiliko dela, bost urtez behin.

Jakina den bezala, 2015a 2015-2019 bosturteko berriaren oinarri-urtea da, baina une honetara arte hasi gabe daude Estatuaren eta Nafarroaren arteko negoziazioak, oinarri-urte horren ekarpena ezartzeari begirakoak. Negoziazio horiek hemen-dik gutxira hastea espero dugu.

Nafarroako Gobernuaren aurrez egiten ari den lan eta ikerketek eman duten emaitza Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuan finkatutakoa da. Aurreikuspen hori 515,6 milioi eurokoa da.

Bi administrazioen aurrekontuetan ageri den zenbatekoa bat ez etortzeari dagokionez, esan beharra dago administrazio bakoitzak bere aurrekontu-autonomia duela, eta aurreikuspenak egiteko administrazio bakoitzak egokitzat jotzen dituen kalkulua egiten dituela, irizpide desberdinekin; eta urtez urte ikusten dugu irizpide horiek ez datozela bat.

Hala eta guztiz ere, 2016ko ekarpen ekonomikoa Batzorde Koordinatzaileak adosten duena izanen da, Hitzarmen Ekonomikoak ezarri bezala.

Hitzarmen Ekonomikoari begira Espainiako Gobernuarekin negoziatzeko dauden gaiak dago-kienz, aipatu bezala oraindik ere ez dira hasi

2015-2019 bosturtekoko harreman finantzarioak erabakitze harreman eta negoziazioak. Halaber, aurreko bosturtekoari dagokionez, ixteko geratu dira Batzorde Negoziatzaileak 2013ko eta 2014ko fluxu finantzarioen likidazioari buruz hartutako erabakien idazketa eta sinadura, zeina Hitzarmen Ekonomikoaren 2015eko ekainean onetsitako aldaketaren ondorioa baitira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 21ean

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria:
Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, homofobia edo transfobia egoeren aurkako prebentzio-neurri, protokolo edo jarduketa-programei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, homofobia edo transfobia egoeren aurkako prebentzio-neurri, protokolo edo jarduketa-programei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko abenduaren 7ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatzizko galdera egin du homofobia edo transfobia egoeren aurkako prebentzio-neurri, protokolo edo jarduketa-programei buruz (9-15/PES-00142). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernu arlo desberdinetan ez dago berariazko jarduketa-protokolorik egoera horiek direla eta. Hala eta guztiz ere, programa eta planetan sartutako hainbat jarduketa eta neurri badaude, arlo hau berariaz eta zeharkako izaeraz lantzen dutena, nagusiki Osasun eta Hezkuntza departamentuen arteko koordinazioan oinarrituta.

Osasun Departamentuan honako hau da azpimarratzekoa: ikastetxeetako hezkuntza afektibo-sexualeko lan-ildoetan sartutako prebentzio-jarduketak, FOSHEZ/ELZekin, OPI/NOPLOIrekin eta Hezkuntza Departamentuarekin koordinatuta garatzen direnak. Horien barruan, hezkuntzarako zenbait gida eta material badaude, bai eta

irakasleentzako prestakuntza eta laguntza ere. Haien bitartez, lan egiten da sexu-aukeren eta desioa orientatzeko moduen aniztasuna errespetatzearen, onartzearen eta ikusgarri egitearen alde.

Unibertsitateko irakasleentzat eta NUPekin koordinatuta, unibertsitate osasungarriaren planaren barruan, gida bat badago, hezkuntza afektibo-sexuala zeharkako izaeraz lantzeko, ikasgelan lan egiteko zenbait jarduera berariaz biltzen dituena.

Bestalde, IHESA/GIBa programatik eta NOPLOIren Osasuna Sustatzeko Ataletik arlo horretan lan egiten duten ekimen sozialak laguntzen dira, honako hauentzako diru-laguntzen bitartez GSGen (Gizonekin Sexua duten Gizonak) entitate sozialak, Hiesaren Aurkako Nafarroako Batzorde Hiritarra eta SARE Elkarteak.

Hezkuntza Departamentuari dagokionez, ikastetxeen bizikidetasuna kudeatzearen arloan eskola-jazarpeneko kasuetan jarduteko protokolo bat badago. Areriotasun sozialeko egoeran eragiten duen beste parametro bat identitate edo orientazio sexualaren osagaia da. Horrenbestez, homofobia edo transfobia kasuetan, talde edo gizabanako erasotzaileak justifikatzen duen eraso-egoera kokatzen da "izate bereizgarriaren" atribuzio faltsu batean.

Modu orokorrean, prebentzio-neurrien hezkuntza-esparruari dagokionez, atzemateak eta eskuhartzeak bereizkeria-egoerei erantzuten diete, dela eskola-jazarpenarengatik, dela genero-indarkeriarengatik edo dela genero-identitatearengatik. Halere, egoera zehatzaren larritasunaren arabera ebatziko da jokoan zein baliabide jarriko diren.

Jarduketa mota hauen guztien esparrua dago Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz

kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuan (2010-09-24ko NAO) eta Nafarroako Foru Komunitateko unibertitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itundueta-ko bizikidetzaren arautzen duen abenduaren 16ko 204/2010 Foru Aginduan.

Aipatu berri ditugun 47/2010 Foru Dekretuaren eta 204/2010 Foru Aginduaren garapenean eta aplikazioan eraso homofobiko eta transfobikoei aurrea hartzeko eta haiek atzemateko neurriak badaude, oro har eskola-jazarpeneko era guztietako kasuetarako prebentzio-, atzemate- eta jardute-protokolo eredu desberdinetan sartzen direnak eta ikastetxeetako bizikidetzaren planetan ere erabiltzen direnak.

Irakasleen prestakuntzari dagokionez, ikasmaita guztietan, behin ikastetxeek igortzen dituzten irakasleen prestakuntzarako beharrezan beharrezan atzemandata eta planteatzen diren eskariak ikusita, kasuko prestakuntza-eskaintza egiten da. Irakasleen prestakuntzaren arloko edukiek genero-gaien ondoriozko bazterkeriari aurre egiteko baliabide didaktikoak eta hezkuntza proposamenak biltzen dituzte.

47/2010 Foru Dekretua zehaztu eta zabaltzeko moduan eta gogoz gaude, hezkuntza-erkidegoaren bizikidetasunean jazarpen-egoerarik egon ez dadin eta, noski, jazarpen homofobiko eta transfobikorik egon ez dadin.

Amaitzeko, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuan eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuan LGTB plataformarekin batera lan egiten dugu koordinazio-tresnak ezartzeko eta beharrezan baterako azterketa bat egiteko, egoera homobogikoak edo transfobiakoak kontuan hartuta neurri zehatzak diseinatze aldera. Hori dela eta, aurrekontuen aurreproiektuak 40.000 euroko kontusail berri bat badauka, LGTB kolektiboari informazioa eta arreta emateko zerbitzuaren sorrera garatzeko. Neurri hori uztailan sinatutako programa-akordioan jasota zegoen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko abenduaren 30ean

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Galdera, Nafarroako Jauregiaren eremuko eraikinen mantentze-lanei, zaharberritzeari eta egokitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Jauregiaren eremuko eraikinen mantentze-lanei, zaharberritzeari eta egokitzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko abenduaren 7ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00143). Hau da galderaren edukia: Teknikariek egindako txostenean jaso al da zenbatekoa izan den azken

12 urteotako hondatzea? Egin al daiteke balorazio bat, jakite aldera Administrazioak zenbat diru aurreztuko lukeen alokairutan, eremu horiek (2.000 m²) Nafarroako Gobernuaren lantoki gisa erabiliz gero? Hona Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Teknikariek egindako txostenean jaso al da zenbatekoa izan den azken 12 urteotako hondatzea? galdera dela-eta honako hau erantzun behar dugu:

Informazio teknikoan Nafarroako Jauregiak eta haren inguruneak osatzen duten arkitektura-multzoaren deskribapen bat egiten da, antzinako Nafarroako Artxibo Nagusia barne dela –hari berriazko erreferentzia egiten zaio parlamentu-galderan–, eta gero eraikin-multzoaren egoerari

buruzko xehetasunak ematen dira, zenbait ikuspuntutatik.

Egituraren eta instalazioen egiturazko segurtasunari dagokionez, honako hau dio egindako txostenak: “lehenago begiratuan, eraikinek egiturazko egoera zuzena dute, batez ere forjatuetako argiak eta jada dituzten zama handiak kontuan hartuta.

Hala eta guztiz, ere Artxiboko lehenengo solairuan, hezetasun-gune ugari daude sabaietan, zeinek agerian uzten baitute urtetan teilatua izan den narriatzea eta iragazgaitzasun-falta. Teilatua, izan ere, Uralitaz eginak dago (arautik kanpoko),



Jauregiko eraikinari dagokionez, atzeman dugu xilofagoak daudela zurajeko osagaietan, eta horrek egitura-kontuez haratagoko eragina duela; hain zuzen ere, ondare historiko-artistikoan (Tronuaren Aretoko sabaiak) izan ditzakeen ondorioak konponezinak izan daitezke. Teila arabiarrarekin egindako teilatua eta teilatu-hegaletan berunez egindako erremateek mantentzerik ez dute izan (bizi-linea falta da), eta haien narriatzea berarekin ekartzen ari da teilatu-hegalak eta moldurak suntsitzea; berriki, gainera, euri eta izotz ugari izan diren negu gogorraren ondorioz, erorketak gertatu dira, zeinak suhiltzaileek gerarazi baitituzte zati ez-egonkorak erretiratzearen bidetik (200 Kg inguru). Gai berezia dira jauregiko balkoietako metalezko barandak (eraikina bezain zaharrak), zeinek narriatze orokor agerikoa baitute, herdoilaren eraginez eta batez ere haien deformatu eta eskudela altxarazi duten zabalkuntza anomaloen ondorioz. Metalezko jantzez osatuta daude, eta eraikuntzan behar ziren lasaierak eta zabalkuntza-junturak kontuan hartu ez zirenez eta erorketak gertatzeko arriskua dagoenez, behin-behinekoz ainguratu dira eusteko beso batzuk erabiliz. Kanpoko arrotzeria egoera tamalgarrian dago, eta ate-leiho asko suntsituta daude, zuloekin, arrakalekin eta beira soilekin; eta energiaren gainkostu handi bat eskatzen dute erosotasuneko gutxieneko maileri eusteko. Beste lan-esparru garrantzitsu bat iturria-

eta izan diren filtrazio ugariak aldi baterako konpondu badira ere, erabakitako konponbideak behin-behinekoak baizik ez dira izan. Halaber, solairu honetan, modu berezian antzematen dira kanpoko tenperaturaren aldaketak, teilatuak isolamendurik ez duelako. Eraikin honetan soilik zaharberritu dira artxibozainaren bulegoa eta zezenketa-bulegoa; gainerako aretoak ez dira erabiltzen (biltegiarako baizik ez), zeren eta ez baitituzte bizi-garritasun baldintzak betetzen (berokuntzan, arrotzerian, pinturan, zoladuretan, argiterian eta abarretan dauden gabeziak). Eraikinak 2.000 m² inguru dauzka, azpi-erabilita daudenak.



ren eta lorategiaren konponketari doakiona; izan ere, ontzian dauden filtrazioak –gaur egun eutsi egin zaie– egonkor bilakatu dira. Instalazio elektrikoak, zirkuitu batzuetan, 60 urte dauzka, eta gaurkotze-berrikuste bat eskatzen du. Argitasun-sistemak, berriz, arauz kanpokoak dira eta errendimendu zaharkituak dauzkate. Gauza bera baiezt liteke haize egokituari buruz. Izan ere, halakorik ez dago eraikin osoan, eta urtetan zehar eremuka jarri da. Horren ondorioz, irtenbide ugari bilatu dira, zeinak oztopo bat baitira kontsumoak era erabilera optimizatu eta arrazionalizatzeko. Eraikinaren barruan, akabera asko (zoladurak, pinturak, estaldurak...) arauz kanpo daude eta osasungaitz gertatzen dira (moketak), eta berriro beharko lirarteke (...)

“..Azken urteetako esku-hartzeak, 160 urtetik gora duen eraikin batean nahitaez egin beharreko berezko mantentze-lanen ondoriozkoak, eta erabilera zein banaketetan behin eta berriz egin diren aldaketak, aldeztu aurretik plangintzarik ez egitetik heldutako jarrera erreaktibo eta epe motzekoei dagozkie. Hartara, mantentzerako plan zuzentzailerik ez edukitzeak eta eraikineko erabileren plangintza funtzionalak eragin dute urte hauetan berrehundik gorako esku-hartze izatea, eta kasu askotan horiek esku-hartze partzial, behin-behineko eta epe luzeko helbururik gabekoak izatea...

Eraikinaren egoera kritikoa izaten hasi da lehentasunetako batzuetan, eta bere segurtasuneko "muga malgura" iristen ari da. Urteak jardun gabe pasa ahala balizko istripu bat gertatzeko arriskuak esponentzialki handitu dira, bai eta eraikinaren baitan dauden ondasun historiko-artistikotako batzuen balizko suntsitzea ere. 2007an hasitako krisialdi ekonomikoa ahaztu behar ez dugun arren, zeren eta larrialdiko mantentze-lanen gutxienekoetara iritsi baita aurrekontua arras murriztearen poderioz, gogoratu beharra dago eraikinak 160 urte baino gehiago dituela eta, horrenbestez, arazoa ez dela berriki sortutakoa, baizik eta gaur arte arrastaka ekarritakoa.

Egin al daiteke balorazio bat, jakite aldera Administrazioak zenbat diru aurreztuko lukeen alokairutan, eremu horiek (2.000 m²) Nafarroako Gobernuaren lantoki gisa erabiliz gero? galdera dela-eta honako hau da erantzuna:

Antzinako Nafarroako Artxibo Nagusian erabilgarri dauden espazioak erabiliz alokairuetan aurreztu litekeenaren balorazio ekonomikoari dagokionez, lehenengo ezarri egin beharko da zein den eraikinaren egiazko okupazio-gaitasuna.

Nafarroako Jauregiaren eraikin-multzoak 12.381,43 m²-ko azalera eraikia du guztira; horietatik 1.951,34 m² artxiboaren antzinako eraikinari dagozkio. Eraikin horren azalera eraikia honela banatzen da: 637,31 m² sotoan, 665,45 m² beheko solairuan eta 648,58 m² lehenengo solairuan. Hala eta guztiz ere, guztizko azalera erabilgarria

1.340,58 m²-koa da, atondoa eta eskailera-zuloa kenduta, honela banatuak: 395,76 m² sotoan, 458,61 m² beheko solairuan eta 486,21 m² lehenengo solairuan.

Eremu horiek erabiltzeko gaitasuna aztertzeko, bi planteamendu egin daitezke:

1. Dagoen azalera eraikiaren arabera eta Ondare Zerbitzuak Nafarroako Gobernuaren higiezinaren plana idazteko ezarritako okupazio-ratioak aplikatuta, 62 unitatekoa da lanpostuak hartzeko daukan gaitasuna.

2. Eraikinaren gaitasuna kuantifikatzeko beste bide bat da daukan egituratze arkitektoniko bereziari erreparatuta izan ditzakeen erabilerak konputuan hartzea.

Alokairu-kostuetan lor daitekeen aurrezkiaren balorazio ekonomikoa egiteko, informazio gehigarria behar da, errentan hartuta dauden departamentuetako zerbitzuen programa funtzionalei eta errenta horien kostuari erreparatuta. Informazio hori, ordea, osatzeko dago gaur den egunean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko abenduaren 23an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria María José Beaumont Aristu